

Joseba Intxausti

Euskal Fundazioko idazkari orokorra

Zure ohoretan, Joseba: eskerronez

■ Joan zaigu Joseba Jaka Auzmendi: ez da etorriko berehala besterik. Lan apalean hezia, egun orotan egunaldi osoko lanaren zamak zaildua, ekinean aurkitu eta erakutsi izan digu lanak duen sormenaren poza. Egun bakoitzeko nekearen jabe eta jaun izan da, giza duintasun osoarekin.

Jatorriaren gain enbortu da zuhaitza

Familia xume eta apaletik zetorren Joseba, eta oso gazterik heldu behar izan zion lanari, egunerokoari erantzun eta ahal zen moduan aurrera egiteko. Goierrin, Aizkorripaen jaioa, maite zuen une jakinetan bere haurtzarokoak eta lehen pausoak gogoratzea, betetako bidearen abiaburua maitekero hantxe ikusten zuelako, noski. Gisa berean, sortetxea ere biziki maite izan du, bere burutazioetan eginkizun zituenei hortik ezpala oneko segurtasunak eman nahirik edo.

Lehen urteetan, etxez etxe ezagutu zuen euskal jendea eta Euskal Herria, baita Iparralde ere geroxeago, ditugun indar, gogo, lorpen, porrot eta zirtzilkeriekin. Eta nekerako baino ahalegin berrietarako arrazoi gehiago aurkitu izan ditu Josebak herriedetan. Sortzez ezagututako inguru hurbilean, eta lanean aurrera egin ahala topatutako gertuko lankidetzan eraiki ahal eta nahi izan du Josebak bere euskalgintza.

Beraz, hurrari eta bere jendeari leialtasun osoan sustraituta egin du bere burua euskal self-

Joseba Jakak, kanpotik etengabe indarrean datozkigun menpeketasun kulturaletatik ihes egiteko erabakia hartu izan du

man honek. Alde horretatik, gure herriaren izan-min librearen eredu praktikoa gertatu zaigu, aitaren etxea bertako seme-alabok nola egin beharko genukeen erakutsiz.

Euskal kulturaren enpresari

Enpresa-mundu zabal eta gazte baten sortzaile eta gidaria gertatu da Joseba Jaka. Liburu eta disken sektorearen barruan, autoreengandik eroslearengainoko bide osoa samurtu eta bizkortzen saiatu ondoren, orain arte euskal kulturagintzan eza-gunak ez genituen tamaina, eraginkortasun, iraupen eta estiloa posible direla erakutsi digu berak bere lankideekin. Zinezko lider baten lezio jatorra izan da.

Argitalpen-lanetan hor daude *Elkar* eta *inguruko* beste argitaletxe apala-goak, liburu eta disken produkzioa bideratzeko. Hurrena, produkzio propioaren eta beste askoren zabalkunderako, *Zabaltzen*-ek betetzen du funtsezko zeregina, Euskal Herri osoari batasuna emanez -Ipar-Hegoalde, eta herrialdeak oro-. Euskal kulturaren kontsumitzailearen zerbitzura, eta kalera bertara atek ireki-

ta, euskal kulturari oparotasun eta aurrerki modernoagoak ekarri dizkigten liburudendak daukagu: *Bilintx*, Donostian; *Xalbador*, Nafarroan; *Urretxindorra*, Bilbon; *Zabal*, Baionan, eta *Gasteiz* eta abarretan abian dauden hainbat zerbitzu.

Balio jakin batzuk zaindu nahi izan ditu Joseba Jakaren politikak: Euskal Herriaren batasun kulturala, herrialde bakoitzaren nortasun-bideak, tokian tokiko inoren baliozko ekimenei zor zaien itzala, bezeroarekiko errespeto eta garbitasuna, eta, azkenik, horrekin guztiarekin batera, kanpotik etengabe indarrean datozkigun menpeketasun kulturaletatik ere ihes egiteko erabakia.

Asmoak eta egindakoak ez ditu, noski, bakarrik asmatu eta egin, baina guztietan ardatza izan da Joseba Jaka, guztiari koerentzia ematen, egitarauari iraupena bermatzen, egindakoaren gain mailaz maila hurrengo urratsak proposatu eta egikaritzen.

Utzi digun ondarea

Lehenik, bizi izan eta praktikara eramandako *balio etikoak* gogoraraziko nituzke: lana, irabaz-asmoz baino sorketa eta zer-

bitzu-grinaz biziitzea; lankide eta lantaldeekiko ulermen, egonari eta balioespen leial eta praktikoak; gizarteko lehiaren, zalduntasun-duitasa ez gaitzea; uneak uneko arakasta, hurrengo zerbitzu hobeto berri baten esanetara makurraztea (horrek inbertsio berrietan izan ditzakeen ondorioekin, adibidez); aurrera-gogo guztiak, azken finean, kultura nazional ahul baten beharren eskakizunetara jartzea. Zalantzarik gabe diot: eredu sozial bat da hori, nahi duenak aintzakotzat har dezan.

Eta balioekin batera, *lantaldea*.

Elkar-Zabaltzen-Liburutegia eta *abar*, sinergia indartsu eta zabal baten emaitza da. Horren zuzendaritzan daudenak, eta langile bakoitza, dira Josebak utzi digun ondarearen parte (lagunarte bat horrela definitu litekeen neurrian). Hor ofizioa dago, ofizio ongi zaildua, urtetan heldutasunerako eramana, eta euskal kulturaren onerako etorkizun itxaropen-tsu bat eskain dezakeena.

Bukatzean, kanpotik begiratzen zaituztegunon izenean (hainbat euskaltzalek sentiera bera izan dezakeelakoan nago), Josebak guretzat lapurtu dizkizuen orduengatik esker eta omen sendi eta familiarrekooi, eta lankide izan zaretenoi ere eskerrona: sortu duzun guztia zuen eskuetan dago, eta indar eta filosofia berarekin nahi zaituztegu gurean.

Aizkorriko haize gaztea zabal dadila berriz ere Euskal Herrira! ■

Iñaki Mendiguren



'Bat Bitan...

Bat Bitan... *banatzen da*, hil zaharra ez den Antonio de Iralaren liburu bat da. Baina hark maioismoaz ziharduen, eta ez gure etxeko izurriaz. Euskaldunon arteko konpenezinak ez dirudi oso emankorra politikan, are gutxiago kulturari: gogoratu oraindik ez dugula euskara-eredu bakar bat adostu Administrazioan, helduen euskalduntze-alfabetatzeko bi erakundeak sarri mokoka izan ditugula, edo euskaraz bi egunkari izateko zorian (txarrean) izan ginela.

Baina politikarekin hain lotura zuzenik gabe ere, bada euskalgintzan lehiarako joera antzu bat. Duela urte dezenteko, hiztegi moderno baten falta luzarokoan jasan ondoren, aldi beretsuan bi kaleratu ziren: Euskal Hiztegi Modernoa eta Hiztegi Orokor eta Teknikoa. Itun Berriekin gauza bera, bateratsu agertu ziren Elizen Artekoa eta Euskal Elizbarrutiena. Gero, Entziklopedien gerria pairatu genuen, eta orain berriro hiztegiarena?

Honelaok elkarren berri ez izateagatik edo azpizokoz bakarrik gerta litezke, biak etxekalte Herri txiki honetan. Konkurrentzia bidezko ezezik, onuragarria ere izan daiteke; baina euskalgintzaren soroa, batetik, ez da hain zabala askori jaten emateko; bestetik, oraindik sail askotako ditugu inork joratu gabek. Zentzugabea da batak goldaturikoa, besteak aitzuritu nahi izatea. Gizakia omen da zulo berean hanka birritan sartzen duen abere bakarra; baina, kontxoli, hainbestetan?

Rikardo Arregi Diaz de Heredia



Carmen, Colomba eta...

Plazer handiz irakurri dut azken egunotan nobela txiki bat: *Colomba*, Prosper Mérimée-rena -badakizue, Carmen sonatu hura ere idatzi zuena-. 1811...eko urriaren lehen egunetan, Sir Thomas Nevil koronelak (armada ingelesko ofizial friandiar ospetsuak) bere alabarekin Marsellako Beauvau hotelera... Horrela hasten diren nobelek, garai hartako izpiritu eta gogoz irakurtzen badira, atsegin franko ekaritzen digute eta, aldi berean eta ezinbesteko, barre ttipiak sortarazten dizkigute bi mendek zorrotzuriko gure begien aurrean horrelako abenturak eta pertsonaialk igarotzen direnean.

Carmen hura Andaluziakoa bazen, oraingo Colomba hau Korsikakoa da eta, bestea bezela, ganibet batez armaturik dabil.

Ez dakit Mérimée Euskal Herria bisitatu eta antzerako ipuinik idatzi zuen -informazioa eskertuko nuke- baina jolas polita da asmatzea zer nolako emakume deskribatu zukeen, Kostalde ala mendialdekoa? Ganibeta berriz, ala, beharbada, aizkora? Bidelapur zintzoak ala kharlistadetako soldadu ausartak? Bahagarriak dira mito hauek. Turismo arduradunentzat bereziki, zuku denek ateratzen diete, modan daude batzuetan eta gorroigarriak dira bestetan. Mérimée ez zigun euskal Colombarik utzi, baina geure buruaz barre egiteko badugu mito zahar eta berri ugari.

L A P H I T Z A

